

# MUGIKORRA LIBURU GISA

*Posted on 05/11/2015 by Naider*



**Luis von Anh guatemalarrak mugikorretarako aplikazio bat sortu du, Duolingo izenez ezagutzen dena, eta AEBetako zenbait estatutan dagoeneko lortu du helburu, hizkuntza ikasleen tresna eta erreferente nagusi bihurtzea. Startup honek hizkuntza bat ikastea maila, erronka eta helburuak zehaztuta dituen joko bihurtzen du, eta erabiltzaileen beraren datuak biltzen ditu, ikaskuntza ahalik eta praktika pertsonalena izan dadin.**

**Programak ikasleak aspertzen dituen zurruntasun didaktikorik ez izateaz eta aldi berean emankorra eta eraginkorra izateaz harrotzen da. Ukaezina dena da aplikazio honek Estatu Batuetan izan duen arrakasta, hainbeste non Harvard Unibertsitateko departamentuek zein Kolonbiako Gobernuak Duolingok emandako ziurtagiriak onartzen dituzte**

**Programa Luis von Anh-ek bere azken enpresa Google-ri saldu ostean sortu zen, eta horrek oso egoera ekonomiko erosoan utzi zuen enpresaburua, bere hitzetan "Erabat aldatu zitzaidan bizitza. Bat-batean ez nuen gehiago. Ez zegoen beharrik. Iana, ez nik eta ez nire seme-alabek, ziur. Horrek ezberdin pentsarazi ninduen. Jendeari laguntzera bideratutako proiektuetan pentsatzen hasi nintzen", hortik sortu zen Duolingo, Hollywoodeko izarrek ere gaur egun erabiltzen duten aplikazioa .**

**There are no comments yet.**